



# ARETXABALETAKO UDALARI PROPOSAMENAK

2016-2017 ikasturtea  
KLIMA ALDAKETA



2. mailakoek Aretxabaletako udaleko langileek, lanean, Klima aldaketari eragiten dion kerik botatzen den aztertu genuen. Horretarako, herrian zehar gehien mugitzen diren langileei galdetu genien eta hona hemen ateratako datuak:

### **UDALTZAINAK**

- 14 urte dituen kotxe bat daukate eta 9 urte dituen “todo terreno” bat.
- Biek gasolioa erabiltzen dute.

### **BRIGADAK**

- 11 urte dituen furgonetatxo bat dauka, 10 urte dituen “todo terreno” bat eta 16 urte dituen kamioitxo bat.
- Hirurek gasolioa erabiltzen dute.

Beraz, ondorio nagusia Aretxabaletako udaleko ibilgailuek Lurraren Beroketari eragiten diotela da. Egoera hobetzeko hauek dira gure proposamenak:

1. Udaltzainek ahal dutenean bizikletak erabil ditzatela.
2. Ibilgailuak aldatu behar dituztenean (brigadarentzako, udaltzaintzako) elektrikoak erostea.

Mila esker zuen arretagatik.




Aretxabaletako Kurtzebarriko 4. mailako ikasleen ordezkariak gara.

4. mailakoek Aretxabaletarren mugikortasun ohiturak aztertu ditugu. Horretarako 15 minututan (autobusen maiztasuna) zenbat pertsona sartu ziren Aretxabaletara eta zenbat irten zenbatu genuen. Ondorioztatu genuen, nagusiki, kotxean eta bakarrik mugitzen garela, eta horrela beharrez, dauden autobusak erabiliko bagenu, negutegi efektuko askoz ere gas gutxiago isuriko genituela.

Hau ikusita, hobetzeko zenbait eskaera ditugu:

- ⑩ Udalak kotxea partekatzeko kanpaina bat jarri beharko luke abian, neurtu ditugun ibilgailu gehienak bakarrik datozelako.
  
- ⑩ Alokatzeko bizikletak ipini daitezke herriz-herriz mugitzeko.

Gure eskaerak kontuan izango dituzuelakoan, eskerririk asko.



6. mailako ikasleok, Aretxabaletarrek elikagaiak erosterakoan duten eskaintza aztertu dugu. Haragia eta ogia, opilak etab. Aretxabaletakoak edo ingurukoak erosi ditzakegu. Arrandegietan Kantauriar itsasoko espezie asko daukagu, baita oso urrutiko beste batzuk ere eta barazki eta frutetan antzerako zerbait gertatzen da. Era berean, oso ortu gutxi dago gure inguruan, eta bertako produktu gehiago ez saltzearen arrazoia, ez direla ekoizten da. Beraz, hau ikusita, hona hemen gure proposamenak:

- ⑩ Aretxabaletan baratzeak jarri nahi dituztenei lagundu behar zaie, horrela inguruko produktu gehiago izango genituzke eta ez zen hain urrutitik ekarri beharko.


Eskaera hau kontuan hartuko duzuelakoan, aurrez mila esker.



DBH 1. mailako ikasleok Aretxabaletan lurrari ematen zaion erabilpena aztertu dugu. Horretarako gure herriko 1954ko, 1983ko ortofotoak eta gaur egungo egoera aztertu dugu. Ondorioztatu dugu, azken urte hauetan lantegi, errepide eta kotxeei eman zaiela lehentasuna eta honek klima aldaketarengan eragin zuzena duela. Hau ikusita, udalari proposamen hauek helarazi nahi dizkiogu:

- ⑩ Etxe hutsak berrerabili edo berreraiki berriak egin beharreen.
- ⑩ Eraikuntza berriak egiterakoan lorategiak egin arazi
- ⑩ Eraiki gabe dauden berdeguneak dauden bezala utzi (skate park albokoa)
- ⑩ Skate park txikia desmuntatu eta handiaren albora eraman eta txikia dagoen lekuan berdegunea egin.

Eskerrik asko



DBH 2. mailako ikasleak gara eta guri aztertzea tokatu zaigun gaia energia izan da. Zenbait udal eraikinek erabiltzen duten energia mota aztertu dugu, Basotxon, Arkupen, Kiroldegan, Udaletxean, euskaltegian eta Kurtzebarri LHn. Ondorioztatu dugu, berokuntzan gehien erabiltzen den energia iturria gas naturala dela (erregai fosiletan gutxien kutsatzen duena) eta argiztapenerako, sare nagusitik datorkigun argindarra (%90a inguru iturri berriztaezinetatik datorrena).

Ikasi dugu, badaudela kooperatibak ziurtatzen dutenak, ordaintzen den argindarra iturri berriztagarrietatik datorrela, nahiz eta kontsumitzerako orduan, iturri ezberdinetatik datorren argindar guztiak nahastuta egon.

Beraz, gaurkoan egin nahi dizuegun eskaera ondokoa da:  
Jatorri berriztagarria duen energia hornitzailea kontratatu dezazuela.

Eskerrik asko eta beste bat arte



DBH 2. mailako ikasleak


## HERRI DIAGNOSIA

**Lehenengo mailakoek**, jolas orduan sortzen den zabor kopurua neurtu eta pisatu dugu. Konturatu gara, hainbat eta hainbat janari ekartzen direnak zorroa daukatela. Gure helburua horiek gutxitzea izango da. Gure konpromisoak:

- ⑩ Berrerabili daitezkeen ontzietan ekartzeko kanpaina bat egitea.
- ⑩ Elikadura osasuntsuago bat bultzatzea, fruta, fruitu lehorrak edo antzetako hamaiketakoak ekarriz.

**3. mailakoek**, Eskolan erabiltzen den energia aztertu dugu. Atera ditugun ondorioak hauek dira:

- ⑩ Eskolan leiho berriak ipini beroa hobeto mantenduko dutenak horrela ez da hainbeste bero galduko.
- ⑩ Berogailuak erregulatzailer batekin ipini, gelako tenperatura eta kontsumoa bermatuko dutenak.
- ⑩ Eguzki plaka gehiago ipini berrerabili daitezkeen energia gehiago sortu eta erabiltzeko.
- ⑩ Argi indarra aurrezteko eskolan argia piztu eta itzaltzen duten detektagailu gehiago ipintzea eskatzen diogu udalari.



Guk, **5. mailako** ikasleok, eskolak erabiltzen dituen garraioek isurtzen duten CO<sub>2</sub>a neurtu dugu. Eskolak udalaren laguntzarekin, 54 zuhaitz landatu beharko lituzke urtean sortutako kutsadura hori konpentsatu ahal izateko, landatzeko eremuak utzi eta zuhaitzak erosteko laguntzak emanez. Bestalde, eskolak erabiltzen dituen garraio horien ingurumenarekiko jasangarritasun konpromisoak dituzten ziurtatuko dugu.